

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2023ko IRAILAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2023ko uztailaren 26an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 13:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Ander Iturri Torrea
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Vicente Garcia Momblona
Jose Agustin Arrieta Eguiguren


Bere ezin etorria azaltzen du: Maria Isabel Vaquero Montero

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2023ko ekainaren 27an egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 27 de junio de 2023.**
 - **2023ko uztailaren 14an egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 14 de julio de 2023.**
 - **2023ko uztailaren 26an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 26 de julio de 2023.**
 - **2023ko abuztuaren 3an egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 3 de agosto de 2023.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Batzorde informatzailearen sorrera eta udalbatzaren maiztasunaren eguna aldatzea/ Creación de la comisión informativa y modificación de la fecha de la periodicidad del pleno.**
- 5. Laguntza teknikorako eta administrazio publikoek suspertze, transformazio eta erresilientzia planean parte hartzea dinamizatzeko zerbitzura atxikitze protokoloa/ Protocolo de adhesión al servicio de asistencia técnica y dinamización de la participación de las administraciones publicas en el plan de recuperación, transformación y resiliencia.**
- 6. Andragora, Tolosaldeko Emakumeen etxeak eskainiko dituen jarduerak eta zerbitzuak abian jartzeko eta garatzeko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak emateko Tolosaldeko 24 udalen**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


- arteko lankidetzeta-hitzarmena / Convenio de colaboración entre los 24 ayuntamientos de Tolosaldea para la provisión de recursos económicos y humanos para la puesta en marcha y desarrollo de las actividades y servicios del Centro de Mujeres de Tolosaldea.
7. 4/2023 Kreditu aldaketa/ Modificación de créditos 4/2023.
 8. 2023/2024 ikasturtean, Larraulen, Euskal Dantza ikastaroaren zerbitzua emateko Nagore Zabala andreari esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato de servicios a Nagore Zabala, para impartir un curso de Euskal Dantza en Larraul durante el curso escolar 2023/2024.
 9. 2023/2024 ikasturtean, Larraulen, Esku pilota ikastaroaren zerbitzua emateko Iñaki Esnal jaunari esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato de servicios a Iñaki Esnal, para impartir un curso de Esku pilota en Larraul durante el curso escolar 202/2024.
 10. 2023/2024 ikasturtean, Larraulen, ingelesa emateko Udane Alcalde andreari esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato de servicios a Udane Alcalde, para impartir un curso de Ingles en Larraul durante el curso escolar 202/2024.
 11. 2023-2024 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzaren oinarrien onespena, hala bada/ Aprobación, si procede, de las bases de la subvención para la realización de cursos de euskera a la población de Larraul para el curso 2023-2024.
 13. Beste batzuk/Otros.
 14. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

..//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2023 urteko ekainaren 27an egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak aho batez onesten du.
- ▣ 2023 urteko uztailaren 14an egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren Jose Agustin Arrieta zinegotziak azaltzen du akta honetan akats bat dagoela, non, Organo kolegiatuen udal ordezkariak izendatzerakoan, bere kontrako bozka azaltzen denean “Joxe Agustin Egiguren” azaltzen dela eta ez Joxe Agustin Arrieta, berez zuzenketa hau egiten da, ondoren, udalbatzak aho batez akta zirriborroa onesten du.
- ▣ 2023 urteko uztailaren 26an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak aho batez onesten du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- ▣ 2023 urteko abuztuaren 3an egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak aho batez onesten du.

BIGARRENGO PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 42/2023tik 47/2023ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.


HIRUGARRENGO PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TELEFONICA	10,41
TELEFONICA	27,83
TELEFONICA	147,32
TELEFONICA	243,69
FERRETERIA GOROSTIDI	69,06
ZU ETA BIOK	248,53
ANGEL ALTUNA	637,44
TRANSPORTES URBIETA	387,20
REPSOL ELECTRICIDAD	57,39
REPSOL ELECTRICIDAD	196,29
REPSOL ELECTRICIDAD	101,28
REPSOL ELECTRICIDAD	63,66
REPSOL ELECTRICIDAD	20,97
KATILLU TXULO	297,94
ALURR DANTZA TALDEA	400,00
ZU ETA BIOK	422,51
ASTEASUKO UDALA	1.020,00
OSTARBI	589,88
IÑIGO ALTUNA	726,00
HERRI OSTATUA	20,00
MAITE ARANA	44,00
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.351,00
ANE ITURBE	2.964,50

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.046,90** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

BATZORDE INFORMATZAILEAREN SORRERA ETA UDALBATZAREN MAIZTASUNAREN EGUNA ALDATZEA

Ikusita Maribel Vaquero zinegotziak aurreko udalbatzan bi eskaera egin zituela:

- Udalbatzan erabakitzen ziren gaiak, aurretik batzorde informatzaile batean tratatzea.
- Udalbatzaren maiztasunaren eguna aldatzea, asteartetan berak ezin duelako bertan egon.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.-Herritarrak batzorde informatzailea sortzea, bertan, udalbatzarrean tratatuko diren gaiak landuko dira.

Herritarrak batzorde informatzailean parte hartuko dute:

- Vicente Garcia Momblona, bere ordezkoa, Ander Iturri Torrea
- Maite Arana Perez, bere ordezkoa, Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
- Jose Agustin Arrieta Eguiguren, bere ordezkoa, Maria Isabel Vaquero Montero

Batzorde burua: Vicente Garcia Momblona


Batzorde hau, osoko bilkura egin aurreko ostiralean egingo da, eguerdiko 12:00etan.

BIGARRENGOA.-Udalbatzaren maiztasunaren eguna aldatzea, ondorengo izango delarik:

Udalbatzak hilero egingo dira, hilaren azken ostiralean, eguerdiko 12:00etan. Aukera egongo da, aurreko edo ondorengo ostiralean egiteko, ordu berdinean, hilaren azken ostirala jai eguna bada.

BOSTGARRENGO PUNTUA

LAGUNTZA TEKNIKORAKO ETA ADMINISTRAZIO PULBIKOEK SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN PARTE HARTZEA DINAMIZATZEKO ZERBITZURA ATXIKITZEKO PROTOKOLOA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2023ko otsailaren 7an, Ministro Kontseiluak baimena eman zion Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren enkargua egiteko TRAGSATEC bitarteko propioari, Europako Funtsen Idazkaritza Nagusitik zuzenduko da, administrazio publikoek Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean (PRTR) parte hartzeko laguntza teknikoa eta dinamizazioa emateko zerbitzua aurrera eramateko. Zerbitzu hori, bereziki, 5.000 biztanletik beherako EELLEi zuzenduta dago; izan ere, EELLEk dira baliabide tekniko eta giza baliabide gutxien dituztenak planean parte hartzeko eta Europako eta nazioko araudiarekin bat etorritik administrazio horrek dakartzan betebeharrak eta betekizunak betetzeko.

Horren harira, TRAGSATEC enpresaren zerbitzua bost jardueramultzotan banatuko da. Protokolo honen arabera bat egiten duten herri-administrazioek aukera izango dute, enkarguaren iraunaldian, denetara edo horietakoren batera jotzeko, mandatuaren III. eranskinean agertzen den mandatuari atxikitzeko egintza sinatu ondoren. Hona hemen jarduera horiek:

- Administrazio Publikoek PRTRn duten parte-hartzea dinamizatzea eta zerbitzuari atxikitzea izapidetzen laguntzea
- Azpiproiektuen parte-hartzean, jarraipenean eta gauzatzean laguntza teknikoa ematea.
- Laguntza teknikoa informazio-sistema integratua erabiltzeko (Coffee)
- PRTR kudeatzeko betebeharrak betetzeko laguntza teknikoa
- Jardunbide egokiak biltzea eta zabaltzea

Beraz, zerbitzu hau jaso ahal izateko, Larraulgo udalak aipaturiko protokoloari atxiki egin behar zaio, horretarako III. Eranskina onartu eta sinatuz. Ondoren Idazkari-kontuhartzailea zein den jakinaraziz, dokumentua bete eta sinatu egin behar da.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Laguntza teknikorako eta administrazio publikoek suspertze, transformazio eta erresilientzia planean parte hartzeko zerbitzura atxikitzeko protokoloa onestea, eta Larraulgo udaleko idazkari-kontuhartzailea zein den berri ematea.

BIGARRENA: Maite Arana Perez alkate andrea, aipaturiko protokoloa sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tragsatec enpresari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA ESKAINIKO DITUEN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK ABIAN JARTZEKO ETA GARATZEKO



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK EMATEKO
TOLOSALDEKO 24 UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

Ikusita Tolosaldeko emakumeen etxe bat izateko proiektua aldarrikatu zela Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioan (2009-2011), eta 2012an Tolosako emakumeek haien espazio propio izatea eskatu zutela.

Ikusita 2023ko maiatzaren 5ean, 22/2023 Alkatetza ebazpen bidez Tolosaldea Garatzen S.A. elkarteari, Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxeko programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko zerbitzuen kontratazioa egikaritzeko enkargua eman zitzaioa.

Ikusita Tolosaldeko emakumeen etxearen helburu orokorra ondorengoa izango dela: Emakumeen topaketa, eztabaida, ikaskuntza eta ahalduntzerako gune seguru eta kolektibo bat izatea, agenda feminista politikaren erdiko ardatzean kokatu ahal izateko, feminismoaren helburu politikoak txertatuta, desberdintasunak eta izan litezkeen intersekzio kontuan harturik, oraingo agenda inplikaturako eragileekin zabaldurik, eta beharrezko tresnak eta metodologiak berriturik.

Ikusita Emakumeen etxea kudeatu, finantzatu, jarraipena egin eta kontrolatzeko, Tolosaldeko 24 udalek onestu dezaten hitzarmen zirriborro bat prestatu dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko 24 udalen arteko lankidetzak-hitzarmenaren onespena, Andragora, Tolosaldeko emakumeen etxea kudeatu, finantzatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko.


BIGARRENA: Larraulgo Alkate-Lehendakaria, Maria Teresa Arana Perez andrea ahalmenu, erabaki hau aurrera eramateko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosako udalari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
4/2023 KREDITU ALDAKETA

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipaturako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:


Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.160.153.40.01 2023	GIZART.SEG.PERTS.LABOR.OBR. BRIG.	9.000,00	4.000,00	13.000,00
1 0000.205.920.00.01 2023	FOTOKOPIADORAREN RENTING-A	600,00	500,00	1.100,00
1 0000.210.153.30.01 2023	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.HIRI ALTZ.	200,00	200,00	400,00
1 0000.210.920.00.01 2023	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.UDALETXEA	800,00	2.000,00	2.800,00
1 0000.220.920.00.01 2023	BULEGO MATERIALA ETA MANTENIM.	1.900,00	200,00	2.100,00
1 0000.226.920.00.01 2023	AHOLKULARITZA	3.200,00	5.000,00	8.200,00
1 0000.227.920.00.07 2023	AHOLKUL:AZTERK.,LAN TEKNIK..DIPUT.	260,00	200,00	460,00
1 0000.421.230.00.01 2023	AIZTONDO ZERB.MANKOM.GIZAR. ZERBIT.	21.000,00	4.000,00	25.000,00
1 0000.421.330.00.01 2023	AIZTONDO ZERB.MANKOM. KULTURA	4.500,00	500,00	5.000,00
1 0000.680.172.00.01 2023	LURSAIL BATEAN ZUHAITZ LANDAKETA	0,00	500,00	500,00
1 0000.623.327.00.02 2023	PARKE ZAHARREAN HERRITARRENTZAT ETXOLA	0,00	50.000,00	50.000,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1 0000.226.432.00.03 2023	HERRIA PROMOZIONATZEKO BIDEOA	0,00	1.400,00	1.400,00
1 0000.226.338.00.06 2023	HERRIKO JAIK	15.000,00	3.500,00	18.500,00
1 0000.210.333.00.02 2023	AZPIEG.ETA ONDASUN GASTUAK: MUSEOA	800,00	500,00	1.300,00
1 0000.227.341.00.04 2023	KIROL GASTUAK	1.500,00	600,00	2.100,00
1 0000.227.920.00.01 2023	GARBIKETA ZERBITZUA. UDALETXEA	2.000,00	1.100,00	3.100,00
1 0000.227.942.00.07 2023	AHOLK.AZTERK.ETA TEKNIK: DIPUTAZIOA	200,00	500,00	700,00
1 0000.230.153.40.01 2023	PERTSONAL.DIETA,LOKOMO:UD AL BRIGADA	100,00	600,00	700,00
1 0000.332.011.00.01 2023	MAILEGUEN INTERESAK	1.500,00	500,00	2.000,00
1 0000.623.153.40.01 2023	HERRI LANETARAKO MAKINARIA	3.000,00	1.500,00	4.500,00
1 0000.721.161.00.01 2023	UR KONTSORTZIOA	8.200,00	200,00	8.400,00
1 0000.226.425.00.01 2023	AHOLKULARITZA: ENERGI AURREZPENA	0,00	1.300,00	1.300,00
1 0000.210.164.00.01 2023	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.HILERRIA	200,00	600,00	800,00
1 0000.222.323.00.01 2023	TELEFONO BIDEZKO KOM.ESKOLA	1.700,00	700,00	2.400,00
1 0000.226.231.50.06 2023	EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK	1.000,00	200,00	1.200,00
1 0000.226.334.00.06 2023	JARDUERA SOZIO KULTURALAK	600,00	200,00	800,00
1 0000.230.920.00.01 2023	PERTSONAL.DIETA,LOKOMO:FU NTZION.	100,00	100,00	200,00
1 0000.422.430.00.01 2023	BESTE ENTIT.EKARP.TOLOSALDEA	5.600,00	500,00	6.100,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

	GARAT.			
1 0000.685.933.00.01 2023	INBERTSIOAK: HERRI OSTATUKO MOBILIARIOA	4.844,49	2.000,00	6.844,49
1 0000.623.153.30.01 2023	ZERBITZ.INBERTS.:ELIZAKO ERLOJUA	0,00	4.000,00	4.000,00
1 0000.682.920.00.01 2023	UDALETXE SARRERAN LANAK	1.000,00	1.000,00	2.000,00
GUZTIRA		88.804,49	88.100,00	176.904,49

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2023	GERAKINAK	88.100,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			88.100,00

KODEEN AZALPENA


BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

ZORTZIGARREN PUNTUA 2023/2024 IKASTURTEAN, LARRAULEN, EUSKAL DANTZA IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO OINKARI DANTZA TALDEARI ESLEIPENA, HALA BADA

Kontuan hartuta Larraulgo udalerrian 2023-2024 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Oinkari dantza taldeari esleitzea, Larraulgo herrian 2023/2024 ikasturterako dantza klaseak eman ditzan. Guztira, **2.160,00€ (BEZa salbuetsita)** kopuruko gastua izanik.

2023ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Oinkari dantza taldearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2023-2024 ikasturtean zehar, 2023ko urriaren 4tik 2023ko ekainak 23arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan dantza eskolak emateko, ordu bakoitzeko 40,00 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2023-2024 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 54 izango dira. Hori guztira, 2.160,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.


SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

2023/2024 IKASTURTEAN, LARRAULEN, ESKU PILOTA IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO IÑAKI ESNAL AIZPURUA JAUNARI ESLEIPENA, HALA BADA

Kontuan hartuta Larraulgo udalerrian 2023-2024 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Iñaki Esnal Aizpurua jaunari esleitzea, Larraulgo herrian 2023/2024 ikasturterako Esku pilota klaseak eman ditzan. Guztira, 1.125,00€ (BEZa salbuetsita) kopuruko gastua izanik.

2023ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Iñaki Esnal Aizpurua jaunarekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2023-2024 ikasturtean zehar, 2023ko irailaren 18tik 2024ko ekainaren 17arte, horretarako egokitutako udal frontoian esku pilota eskolak emateko, ordu bakoitzeko 25 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2023-2024 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 45 izango dira. Hori guztira, 1.125,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.


BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

HAMARGARREN PUNTUA

2023/2024 IKASTURTEAN, LARRAULEN, INGELESA IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO UDANE ALCALDE URRACA ANDEREARI ESLEIPENA, HALA BADA

Kontuan hartuta Larraulgo udalerrian 2023-2024 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udane Alcalde Urraca andereari esleitzea, Larraulgo herrian 2023/2024 ikasturterako english friday klaseak eman ditzan. Guztira, 1.350,00€ (BEZa salbuetsita) kopuruko gastua izanik.

2023ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatu da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Udane Alcalde Urraca anderearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2023-2024 ikasturtean zehar, 2023ko urriaren 6tik 2024ko ekainaren 21arte, horretarako egokitutako udaletxeko liburutegian english friday eskolak emateko, ordu bakoitzeko 25 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.


HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2023-2024 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 54 izango dira. Hori guztira, 1.350,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

HAMAIKAGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2023-2024 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADA

Alkate-Lehendakari andreak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andreak 2023-2024 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2023-2024 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Diru-laguntza eskaera egiteko epea, 2023ko urriaren 1etik 2024ko uztailaren 31arte zabalduko da.

HIRUGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

12.1. LARRAULGO 1. POLIGONOKO, 087 LURSAILAREN JABEAREKIN HITZARMENA, APARKALEKU MODURA ERABILTZEKO

Ikusirik Larraulgo Udalerriko parke aldamenean dagoen aparkalekua, Pedro Usandizaga Ceberio jaunaren jabetzako dena, herriko aparkaleku moduan erabiltzen dela eta jarduera horretarako beharrezkoa dela.


Ikusirik, alokairu kontratua bukatu dela eta beharrezkoa dela berri bat egitea, hitzarmen modura egitea proposatzen delarik.

Ikusirik, kontratua amaitu zenetik zor bat dagoela Pedro Usandizaga Ceberio jaunarekin, zorra kitatzeko 1.500,00euro ordaintzea proposatzen da.

Bertaratuek, gaia azterturik, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Pedro Usandizaga Ceberio jaunarekin hitzarmena sinatzeko baimena, bertan, Usandizaga jaunaren jabetzako poligono 1eko 087 lursaila, hau da, parke aldamenean dagoen aparkalekua erabiltzeko klausulak



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

arautuko dira. Hitzarmenean arautzen diren puntuen artean nabarmenenak ondorengoak izango dira:

Hitzarmenaren arabera, Pedro Usandizaga jaunari urtean 360 euro ordainduko zaizkio.

Hitzarmenak 2023ko urriaren 1etik 2027ko irailaren 30arteko indarraldia izango du.

Orain arte Larraulgo Udalak aipatutako finkari egin dion erabileraren ordainetan, dagokion hitzarmena eguneratu gabe, MILA ETA BOSTEHUN (1.500,00) euro ordainduko dizkio Usandizaga jaunari.

BIGARRENA.- Maite Arana Perez alkate andreari ahalmena ematea Hitzarmen hau sina dezan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Pedro Usandizaga Ceberio jaunari ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkitzen.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 12:28 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.